



Eida didaktikoa

Etorkizuna ez da saltzen

Emakume defendatzaileak lurrian

InteRed 
por una educación transformadora



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN



PURA  QUITERIA

Argitaratzailea: **InteRed**
por una educación transformadora

Izenburua: Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean.

Koordinazioa: InteRed

Egilea: PURA QUITERIA

Argazkiak: PURA QUITERIA

Diseinua eta maketazioa: PURA QUITERIA


Argitaratze-data: 2025eko urria

ISBN: 978-84-121198-9-3

Creative Commons lizentzia. Material hau lizentzia honen mende dago: Creative Commons Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)/ Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>



Finantzaketa:



Material hau "Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonen eta planetaren zainketa erdigunean" proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu hori Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) finantzatu du. Argitalpenaren edukiaren erantzukizun osoa InteRed erakundeari dagokio, eta ez du, ezinbestean, AECIDen iritzia islatzen.

Kaixo!

Ongi etorri hezkuntza-proposamen honetara. Munduko hainbat tokitan lurra defendatzen duten emakumeen gizarte- eta ingurumen-borroketara hurbilduko zaitu. Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean bideoa ikusita, eta hausnarketa-galderen eta jarduera parte-hartzaileen bidez, ikasleen artean kontzientzia kritikoa, sentsibiltate ekologikoa eta justiziaren zentzua piztea bilatzen du material honek.

Gida hau, tresna pedagogikoa izateaz gain, beste mundu posible batzuk irudikatzeko eta itxaropena berreskuratzeko gonbidapena da. Uste dugu irudimena indar eraldatzailea dela, etorkizun justuago, bizigarriago eta jasangarriago baterantz bultza gaitzakeena.

Norentzat da?

Baliabide hau irakasleek DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleekin erabiltzeko pentsatuta dago.



Begirada ekotopikoak

Gida hau uste sendo batetik abiatzen da: eraldaketa ekosoziala bestelako mundu posibleak irudikatzetik hasten da. Krisi anitzen testuinguruan —klimatikoa, soziala, energetikoa eta zainketena, besteak beste—, oraina ulertzen laguntzeaz gain, etorkizun desiragarriak kolektiboki eraikitzen lagunduko diguten tresnak behar ditugu.

Hori dela eta, baliabide hau ikuspegi ekotopiko¹ batetik eginda dago, etorkizun justu, jasangarri eta bizigarriak imajinatzea helburu duena, mobilizazioa sustatzeko eta ekoantsietatetik² ihes egiteko.

¹ Ekotopia etorkizun jasangarri eta justuen ikuspegi itxaropentsua da, naturarekin harmonian.

² Ekoantsietatea, aldiz, krisi ekologikoaren aurrean pertsona askok sentitzen duten ondoeza da, batez ere gazteek. Bi kontzeptu horiek lotzeak aukera ematen du planetaren zaintzari minaren aitortzatik heltzeko, baina baita alternatiba eraldatzaileak irudikatzeko eta eraikitzeko aukeratik ere. *ativas transformadoras*.

Baliabide horrek funtsezko hiru oinarri ditu:

- Kosmobisioa eta lurraldea: Defendatzaileak ez dute soilik borrokatzen natura-baliabideak kutsatzen edo kentzen dituzten proiektuen aurka. Zaintzan, elkarrekiko laguntzan eta memoria kolektiboan oinarritutako bizimodua defendatzen dute, lurraldean bizitzeko modu bat. Borroka horiek kulturalak eta sinbolikoak ere badira: hizkuntza bat, jakintza batzuk eta onura ekonomikoak gidatu beharrean, bizitzaren balioak gidatzen duen lurrarekiko harremana babestea.
- Elkarri lotutako desberdintasunak: Krisi klimatikoa ez da fenomeno isolatua. Kolonialismoarekin³, patriarkatuarekin⁴ eta kapitalismoarekin⁵ lotuta dago. Emakume defendatzaileek, askotan landa-inguruneetan edo Hego globalean, indarkeria eta desberdintasun anitzen elkargunean jarraitzen dute. Horregatik, haien ahotsak funtsezkoak dira: sistemari aurre egiten dioten bestelako antolaketa sozial, komunitario eta ekonomikoak bistaratzen dituzte.

- Irudimena eta ekintza: Beldurraren eta geldirik geratzearen aurrean, imajinatzeraz, amestera, sortzeraz eta jardutera gonbidatzen duten jarduerak proposatuko ditugu. Ez dugu soilik salatu nahi funtzionatzen ez duena. Gida honek kontakizun inspiratzaileak, ekimen errealak eta praktika pedagogikoak biltzen ditu, jarduteko eta alternatiba kolektiboak eraikitze gaitasuna berreskuratzeko.

Zer dela eta sortu da?

Erreferente eraldatzaileen beharra ikusita, eta arazoaren dimentsio globala eta bizi-sistema jasangarri baterako irtenbideen dimentsio globala ulertzeko beharrarekin batera, bideo hau egin zen:

Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean.

Bideo horrek gure gertuko inguruneari begiratzen dio hiru borroka eta garapen eredu ezagutzeko, Galizia, Euskal Herria eta Gaztela eta Leóngo lurraldeetako defendatzaileak diren hiru emakumeren begirada eta kontakizunen bitartez.

Bideoari ahalik eta zuku gehien ateratzeko asmoz, gida hau *Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonen eta planetaren zainketa erdigunean* proiektuaren barruan egin da. InteRedek sortu du eta AECIDek finantzatu du.

³ Europa eta Ipar Amerika historikoki beste herrien gainera jarri dituen menderatze sistema da, haien baliabideen arpilatzea justifikatuz eta desberdintasun- edo menpekotasun-egoeretan mantenduz. Formak aldatzen badira ere, gaur egun ere nabaritzen dira ondorioak.

⁴ Gizonek emakumeek baino botere eta pribilegio gehiago izatea eragiten duten ideia eta jarreraren multzoa. Horren ondorioz, aukera-desberdintasuna sortzen da, eta horrek emakumeei kalte egiten die bizitzako alderdi guztietan.

⁵ Gaur egungo sistema ekonomikoa, non garrantzitsuena dirua irabaztea den. Sistema horrek aberastasuna pertsona gutxi batzuegan kontzentratzea sustatzen du, eta, horrela, desberdintasun sozialak eta ekonomikoak sortzen dira.

Orientatzeko gida

Materiala bi bloke handitan egituratu da. Lehen blokean, murgilduta gauden krisi ekosozialean sakonduko dugu, hainbat botere-sistema lotzen dituen ikuspegi global batetik. Bigarren blokean —materialeko zati handiena—, begirada ekotopikoak aztertuko ditugu, etorkizun posibleak irudikatzeko.

Bloke bakoitzean baliabide hauek daude: sarrera teoriko labur bat, irakasleei beharrezko kontzeptu-gakoak eskaintzen dizkiena; bideoaren zati bakoitzaren bideo forum bat, fitxako jardueren gaia aurkezteko; eta bi jarduera, bata DBHko 3. eta 4. mailetarako eta bestea Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako.

Dokumentuaren aurkibidea:

1. Blokea: “Etorkizuna erosi nahi digute: Lurra eta herriak esplotatzen dituztenean”

- **1. fitxa: Krisi ekosoziala**

- Bideo foruma <<2:07tik 8:48ra>>
- 1. jarduera. Pribilegioak askatzen
- 2. jarduera. Gizarte- eta ingurumen-gatazken mapa

Klikatu azkarrago iristeko

2. Blokea: Etorkizuna ez da saltzen: Beste etorkitzun batzuk irudikatzeko oraina aldatzeko

- **2. fitxa: Nola irudikatzen duzu etorkizuna?**

- Bideo foruma <<00:00tik 1:03ra>>
- 1. jarduera. Posta-txartelak etorkizunetik
- 2. jarduera. Etorkizunera iristeko mapa

- **3. fitxa: Lurraren eta bizitzaren defendatzaileak**

- Bideo foruma <<1:04tik 2:07ra>>
- 1. jarduera. Gure inguruko defendatzaileak
- 2. jarduera. Gorputza-lurraldea

- **4. fitxa: Zergatik defendatzen duzu auzi hori?**

- Bideo foruma <<8:48tik 11:13ra>>
- 1. jarduera. Planetarako albiste onen aldizkaria
- 2. jarduera. Ekodependentziaren gorputz-collagea

- **5. fitxa: Zer da zuretzat natura?**

- Bideo foruma <<14:47tik amaieraraino>>
- 1. jarduera. Bizirik irauten duen natura
- 2. jarduera. Soinu-paisaiak

- **6. fitxa: Gazteak etorkizuna ereiten**

- Bideo foruma <<11:14tik 14:36ra>>
- 1. jarduera. Nire bizitzaren naturaren mapa
- 2. jarduera. Infinizioak, hitzetik ekintzara

Material honek ez ditu curriculum itxi bateko irizpideak betetzen. Aitzitik, helburua da curriculum irekitzea, zabaltzea eta arnasa hartzea. Horregatik, animatzen zaitugu:

- Ikasgelatik ateratzera, auzoari behatzera, lurraldea ikertzera.
- Proposamenak testuinguruaren eta taldearen arabera berregokitzera.
- Emozioei eta irudimenari lekua ematera.
- Irakasten dena bizi denarekin lotzera.

Ausartu zaitez probatzen. Hezkuntza eraldatzaileak ez du ziurtasunik behar, konpromisoa, zaintza eta galdera ausartak baino ez.





Etorkizuna ez da saltzen

Ez dugulako nahi suntsipenez erositako etorkizunik.
Pertsona guztientzako bizitza duina defendatzen dugulako.
Zaintzea eustea ere badelako.
Imajinatzea eraikitzen hastea delako.

1 BLOKEA



Etorkizuna erosi nahi
digute: Lurra eta
herriak esplotatzen
dituztenean

Gaur egun, planeta ingurumen-krisi larria ari da jasaten, baina baita krisi ekosoziala izeneko krisi politiko, ekonomiko, kultural eta etikoa ere. Gure planetak eta gizateriak bizi duen arriskua ulertzeko jakin behar da nola antolatu diren historikoki herrialde, herri eta pertsonen arteko botere harremanak.

Iparraldeak kontsumitu egiten du, hegoaldeak eutsi egiten dio

Mendeetan zehar, natura-aberastasun handiena duten lurraldeak (Afrika, Latinoamerika, Asia eta Ozeania) baliabideen agortezinak balira bezala ustiari dira: baso-mozketak, erauzitako mineralak, kutsatutako ibaiak, okupatutako lurrak... Hori guztia, hazkundean eta kontsumoan oinarritutako eredu ekonomikoari eusteko egin da, eta, batez ere, Ipar globalari ekarri dio onura. Gaur egun, bizirik jarraitzen du sistema horrek, eta mugarik gabe erauzten dira lurrak, gehiegi ekoizten da eta ez zaio mugarik jartzen kontsumoari. Eredu horrek funtzionatzen jarraitzeko energia-, ur- eta mineral-kantitate handiak behar dira, baita gaizki ordaindutako lan asko ere.

Xahutze-ekonomia horrek aberastasuna sortzen du munduko leku batzuetan, beste batzuk pobretu eta suntsitzearen kontura. Subiranotasuna, ingurumen-osasuna eta bizimoduak galtzen dituzten lurraldeak sakrifikatzeari esker, Ipar globaleko hiri handiek beren kontsumoari euts diezaioke. Lurralde horietan bizi diren pertsonak —askotan jatorrizko komunitateak, afrikar ondorengoak, nekazariak edo arrantzaleak— beren bizimoduei uko egiteaz gain, arriskuan ikusten dute beren kultura, identitatea eta mundua beren erara bizitzeko eskubidea.

Harremanak eta zaintza haustea

Krisi honek natura suntsitzeaz gain, giza harremanak ere hausten ditu. Bizi garen ekoizpen-sistemak garrantzi handiagoa ematen dio dirua sortzen duenari, ondo bizitzeko benetan behar dugunari baino. Adibidez, funts publikoak bideratzen dira merkataritza-gune handiak eraikitzeko, baliabideak murrizten diren bitartean edo osasun-zentro eta arreta komunitarioko zentro txikiak ixten diren bitartean, funtsezkoak baitira adineko pertsonak zaintzeko. Hala ere, badira bizitzarako funtsezkoak diren lanak, hala nola beste pertsona batzuk zaintzea, garbitzea, janaria prestatzea edo behar dutenei babesa ematea. Lan horiek ez dira ondo ordainduta edo aitortuta egoten, eta gehienetan emakumeek egiten dituzte. Denak funtziona dezan funtsezkoak diren arren, ia inoiz ez dira agertzen albisteetan eta ez dira kontuan hartzen erabaki garrantzitsuak hartzeko garaian.

Natura larriki kaltetzen denean, hala nola ibaiak lehortzen direnean, lurzoruak kutsatzen direnean edo basoak erretzen direnean, ez ditugu landareak, animaliak edo paisaiak bakarrik galtzen. Pertsonak antolatzeko, elkarri laguntzeko eta elkarrekin bizitzeko moduak ere hausten dira, eta emakumeek pairatzen dituzte gehien ondorioak, emakumeak arduratzen baitira zaintzaz eta bizitzei eustiaz.

Krisi ekosozialaren beste ondorio larrienetako bat da gero eta pertsona gehiagok utzi behar izaten dituztela beren etxeak klimari eta ingurumenari lotutako arrazoiengatik. Klima dela-eta behartutako migrazioa esaten zaio horri, eta honelako egoeratan gertatzen da: nahikoa ur ez dagoenean, lehorteen edo uholdeen ondorioz uztak galtzen direnean, edo lurrak ezin direnean landatu gehiegizko ustiapenaren ondorioz kutsatuta edo agortuta daudelako. Hori gertatzen denean, familia askok beren bizimodua galtzen dute, eta lana, janaria edo bizitzeko leku seguru bat bilatzeko alde egitea beste aukerarik ez dute.

Horregatik diogu krisi ekosoziala errotzearen krisia ere badela, kide izatearen zentzuarena. Hau da, baliabide materialak ez ezik (ura edo lurra, adibidez), bizitzeko moduak, kultura, memoria eta komunitatea ere galtzen dira. Tokian bertan duintasunez bizitzeko, ingurunea zaintzeko eta presak, prekarietateak edo deserrotzeak markatzen ez duen bizitzari eusteko aukera hausten da.

Krisi ekosoziala hona ere iritsi da

Badirudi ingurumen-arazoak beste herrialde batzuetan bakarrik gertatzen direla, baina, egia esan, gure lurraldeetan ere krisi ekosoziala bizitzen ari gara, eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu pertsonengan eta ingurumenean.

Adibidez, gero eta lehorre gehiago daude herrialdeko eremu askotan. Hori gertatzen da euri gutxiago egiten duelako klima-aldaketaren ondorioz, baina baita ur asko erabiltzen delako ere laborantza intentsibo handiak ureztatzeko, esaterako, beste herrialde batzuetara esportatzen diren frutak eta barazkiak. Gainera, eskualde turistiko batzuetan ur asko kontsumitzen da hoteletan, golf zelaietan eta igerilekuetan, eta inguruko herrietan, aldiz, badira etxean ur mozketak dituztenak edo beren baratzeak ureztatu ezin dituztenak.


Beste arazo bat nekazaritza industrialean ongarri eta pestizida kimikoak erabiltzea da, ibaiak, akuiferoak eta lurzoruak kutsatzen baitituzte. Horrek, naturari kalte egiteaz gain, labore horietatik gertu bizi diren edo kutsatutako putzuetatik ura edaten duten pertsonen osasuna kaltetu dezake.

Makroetxaldeak ere badaude, hau da, eremu txikietan hazitako milaka animalia (txerriak edo behiak, adibidez) dituzten ustiategiak. Etxalde horiek hondakin ugari sortzen dituzte, batez ere mindak (animalien pixa eta gorotzak), eta hondakin horiek airea, lurra eta ura kutsatzen dituzte. Askotan, instalazio horiek herri txikien ondoan egoten dira, eta biztanleek jasaten dituzte ondorioak — usain txarrak, zarata edo kutsadura —, aurrez informatu edo kontsultatu gabe.

Beste gai kezkarri bat mineralen eta baliabide naturalen erauzketa da. Espainiako hainbat tokitan, ekosistemak kaltetu eta inguruko komunitateei eragiten dieten (uraren kutsadura, paisaiaren suntsiketa edo etengabeko zarata) meatzaritza-proiektuak daude. Horren adibide da landa-eremuetan meategiak berriro irekitzea, askotan auzokideek erabaki gabe nahi dituzten ala ez.

Azkenik, baso-suteak gero eta ohikoagoak eta larriagoak dira. Hori, hein batean, lursailak bertan behera uzteagatik, basoak gaizki zaintzeagatik eta klima-aldaketak eragindako tenperatura altuengatik gertatzen da. Sute horiek milaka hektarea suntsitzeaz gain, pertsonen eta animalien bizitza arriskuan jartzen dute, eta familia askok etxetik alde egin behar izaten dute.

Ikusten duzunez, krisi ekosoziala ez da munduko beste leku batzuetan bakarrik gertatzen den zerbait. Hemen gertatzen ari da, orain, eta naturari zein pertsoneri eragiten die, batez ere landa-eremuetan edo eremu zaurgarrienetan bizi direnei. Horregatik da garrantzitsua gertatzen ari dena ulertzea, bestelako etorkizun bat irudikatu eta eraiki ahal izateko.



1 FITXA

Krisi

ekosoziala



Bideo-foruma

Bloke honetako jarduerak prestatzeko, lehenik eta behin ikusi *Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean* bideoa, 2:07 minututik 8:48 minutura.

Pasarte horretan, Isabel, Eider eta Belenen testigantzak jasotzen dira. Galiziatik, Euskaditik eta Gaztela eta Leóndik lurraldea defendatzen duten hiru emakume dira, eta Lurraren defentsarekin duten esperientzia eta konpromisoa kontatzen dute. Hemen zati horren laburpen txiki bat:

- Gai hauetaz hitz egiten dute: Galizian Touro meategia berriro irekitzeaz, Urdaibaiko erreserba naturalean planteatutako museo-proiektuaz eta egungo nekazaritza-industriaren ereduez.
- Hainbat gatazkaren ingurumen- eta gizarte-ondorioei buruzko hausnarketa egiten dute.
- Gatazka horien ondorioez eta elikagaiak ekoizteko moduez hitz egingo digute, eta emakumeei bereziki nola eragiten dieten ikusiko dugu.

Bideoa ikusi ondoren, hainbat galdera egingo ditugu, ikasgelan hausnarketa kolektiboa egiteko.

- Zer ondorio dakarzkiete ingurumenari eta pertsonei gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkek?
- Zertan oinarritzen da egungo nekazaritzako elikagaien eredua⁶?
- Zer ezaugarri komun dute defendatzaileek aipatutako gizarte- eta ingurumen-gatazkek?
- Zure ustez, zergatik eragiten die bereziki krisi ekosozialak emakumeei?
- Zaintza-lanak ikusezinak direla esatean, zer esan nahi dugu?
- Nola eragiten du gure bizimoduak krisi ekosozialean?
- Zuen ustez, lotuta al daude ingurumen-gatazka horiek munduko beste leku batzuetako ingurumen-arazoekin?
- Ezagutzen al duzue beste ingurumen-gatazkarik? Ba al dute zerikusirik bideoan azaltzen direnekin?

Jarraian, krisi ekosozialaren ondorioak ulertzen jarraitzeko hainbat jarduera proposatzen ditugu.

⁶ Denbora gutxian kopuru handiak lortzean oinarritzen da elikagaiak ekoizteko egungo eredua, merkatu globaletan saltzeko. Hori lortzeko, lur-eremu handiak lantzen dira produktu bakarrarekin (monolaborantza), makina eta produktu kimiko asko erabiliz, hala nola ongariak eta pestizidak. Helburu nagusia etekin ekonomikoak lortzea da, eta ez ingurumena eta pertsonak zaintzea. Ereduek ondorio larriak sortzen ditu: lurzorua eta ura kutsatzen ditu, biodibertsitatea murrizten du (animaliak eta landareak desagertzen dira) eta desberdintasun sozialak areagotzen ditu, irabaziak esku gutxitan biltzen baitira.

1. JARDUERA: Pribilegioak askatzen

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

1 edo 2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Orri zuria (folioa edo kartoi mehea)
- Arkatzak, errotuladoreak edo margoak
- Erregela (aukerakoa)

Helburuak

- Gure nortasunari buruz hausnartzea
- Gure nortasunak gure eguneroko bizitzan nola eragiten duen ulertzea
- Ohartu gabe izan ditzakegun pribilegioak ezagutzea

Baliabideak eskuratzeko aukera eksklusiboari pribilegio esaten zaio. Hau da, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik abantaila edo immunitatea izatea. Talde horiek pribilegio gehiago izateko arrazoiak ez dira naturalak: kulturalak, historikoak eta konplexuak dira, eta desjabetza- eta bazterketa-prozesuetan oinarritzen dira.

Pribilegioa ikusezina da askotan pribilegio hori daukatenentzat: sistema patriarkal batean eta gorputz zuriek menderatzen duten sistema batean, gizon cis zuria izatea pribilegio bat da. Pribilegioak izateak ez zaitu pertsona txarra egiten, baina sistema desorekatu baten parte zara. Behin kontzientzia hartzen denean, garrantzitsua da norberaren eguneroko lana berrikustea eta ulertzea nire pribilegioei esker sistema oso bat mantentzen dela edo, are gehiago, beste norbait zapaltzen ari garela konturatu gabe.

Kontzientzia hartzeak beste kolektibo batzuen borrokak eta aldarrikapenak babesteko aukera ere ematen digu, baita aurrez aurre jartzen dituzten desberdintasunak ikusarazten laguntzeko ere.

Zenbat eta gehiago hitz egin gure nortasunei eta gure mundu-esperientzian eragiten duten moduari buruz, orduan eta hobeto uler dezakegu nola dauden lotuta izan ditzakegun pribilegioekin eta aurreiritziekin. Zorionez, egunen batean aukera-berdintasuna eta ingurune seguru eta osasungarria eskaintzen dituen gizarte batean biziko gara. Bien bitartean, funtsezkoa da pribilegioa ulertzea eta argitzea, pertsona guztientzako etorkizun justuago batera hurbiltzeko.

1. JARDUERA: Pribilegioak askatzen

Egoera	Zer izan daiteke pribilegio bat egoera honetan?	Eguneroko adibidea
Generoa	Gizarte matxista batean gizona izatea.	Ikasgelan, mutilek gehiago hitz egiten dute, besteek eten gabe. Neskek ahalegin handiagoa egin behar dute entzun diezaieten.
Azalaren kolorea	Zuria izatea arrazakeria existitzen den gizarte batean.	Denda batean ez dira zure atzetik joaten “zu zaintzeko”. Zure kide arrazializatuaren atzetik, ordea, bai.
Hezkuntza	Hezkuntza-baliabide onak eskuratzeko aukera izatea.	Toki egokia duzu ikasteko, eta wifia eta materialak dituzu. Beste pertsona batzuek ez dute etxeko lanak egiteko leku lasai bat ere.
Dokumentazioa	Administrazioari dagokionez, egoera erregularrean egotea herrialde batean, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa izatea edo bizi zaren herrialdeko nazionalitatea izatea.	Bidaiatu, bekak eskatu edo medikuarengana joan zaitezke beldurrik gabe. Egoera irregularrean dagoen norbait deportatua izateko beldur da.
Dirua etxean	Kezka ekonomiko larririk gabe bizitzea.	Akademia bat ordain dezakezu, txangoetara joan edo mugikorra aldatu, hausten bada. Beste batzuek ezin dute.
Osasun mentala eta fisikoa	Osasun-arazo larririk ez izatea.	Kirola egin dezakezu, ikasgelan kontzentratu, erlaxatu, arazoetatik deskonektatu, lasaitasuna sentitu... Batzuek askoz gehiago saiatu behar dute.

1. JARDUERA: Pribilegioak askatzen

Jardueraren deskribapena

Azaldu taldeari pribilegioen *mapa* pertsonal bat egingo dutela. Ez da azterketa bat eta ez da zabalduko baimenik gabe. Helburua da barrura begiratzea, gure nortasunaz pentsatzea eta batzuetan bermatutzat ematen ditugun abantailak aitortzea.

Marratzu zure zentroa

Eskatu ikasleei orriaren erdian beren izena idazteko edo nolakoak diren irudikatzen dituen silueta edo irudi bat marrazteko (pertsona bat, lore bat, bihotz bat, identifikatuko dituen sinbolo bat, etab.). Azaldu ikasleei marrazten edo idazten duten horrek pertsona gisa irudikatuko dituela.

Aztertu zure nortasuna

Ondoren, adierazi beren buruei buruzko informazioa idazteko edo marrazteko izenaren edo marrazkiaren inguruan. Horretarako, esaldiak idatz ditzakete, koloreak erabili, ikonoak marraztu... Nahi dutena.

Alderdi hauek txertatu behar dituzte:

- Adina (Adb.: 15 urte)
- Generoa (Adb.: neska, mutila, binarioa ez den pertsona...)
- Etnia (Adib.: zuria, mestizoa, ijitoa, arrazializatua...)

- Bizitokia (Adb.: herria, hiria, landa-eremua...)
- Hitz egiten dituzun hizkuntzak (Adb.: euskara, gaztelania, arabiera, katalana, ingelesa...)
- Zure familiaren egoera ekonomikoa (Adib.: nire gurasoek lan egonkorra dute, nire etxean batzuetan hilaren amaierara iristea kostatzen da...)
- Erlijioa edo sinesmenak (Adb.: kristaua, musulmana, ateo...)
- Osasun mentala/fisikoa edo dibertsitate funtzionala (Adb.: gurpil-aulkia erabiltzen dut, ADHDn daukat, neurotipikoa naiz...)
- Oinarrizko eskubideetarako sarbidea (Adb.: etxean Internet daukat, familia-medikua daukat, institutura arazorik gabe joaten naiz...)

Guzti horretatik zerk ematen dizkizu abantailak?


Adierazi ikasleei markatzeko beste kolore batekin edo sinboloak erabiliz ★ (abantaila) edo ⚠ (zailtasuna), pribilegioak ematen dizkieten nortasun-alderdiak.

Pribilegioak izan daitezkeen adibideak:

- *Etxea daukat, berogailuarekin eta ur beroarekin.*
- *Institutuko komuna beldurrik eta deserosotasunik gabe erabil dezaket.*
- *Irakasleek ulertzen naute hitz egiten dudanean.*
- *Inork ez nau molestatzen nire arropagatik.*
- *Inoiz ez naute kalean gelditu beste etnia batekoa izateagatik.*

Ondoan idatz dezakete nola sentitzen diren pribilegio hori izateagatik (edo ez izateagatik).

1. JARDUERA: Pribilegioak askatzen



Gehiago

Taldeko horma-irudia

Eskatu pertsona bakoitzari zirkulu bat marrazteko, bere pribilegiorik nabarmenenarekin. Horman edo kartoi mehe handi batean itsats daitezke denak, eta ikasgelan jarri, ikasleen esperientzia-aniztasuna ikusgai jartzeko.

Azken gogoeta

- Nola dago lotuta nire identitatea nire pribilegioekin edo pribilegiorik ez izatearekin?
- Zein dira talde pribilegiatu bateko kide izateagatik ziurtzat jotzen ditudan gauzak?
- Zertan bereizten dira nire talde sozialaren eta beste talde baten esperientziak?
- Zer modu bururatzen zaizkizu zure pribilegioak pertsona gehiagoren artean banatzeko?
- Zer lotura dute pribilegioek krisi ekosozialarekin?

2. JARDUERA: Gizarte- eta ingurumen-gatazken mapa

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Proiektorea
- Mugikorra edo ordenagailuak
- Interneterako sarbidea
- Espainiako mapa fisikoa edo aplikazioak

Helburuak

- Estatu espainiarreko gizarte- eta ingurumen-gatazka zehatzak ikertzea eta ulertzea
- Gatazka horiek gizartean, ingurumenean eta generoan dituzten ondorioei buruz hausnartzea.
- Lurraldea defendatzeko borrokak ikusaraztea.

Gizarte- eta ingurumen-gatazkek inpaktu sakonak dituzte, bai pertsonengan, bai planetan. Baliabide naturalak —ura, lurra, basoak edo mineralak— modu bidegabe edo jasangaitzean ustiatzen direnean sortzen dira, lurralde horietan bizi den jendearen eskubideak eta Lurraren mugak kontuan hartu gabe.

Gatazka horiek kutsadura, biodibertsitatearen galera, behartutako desplazamenduak, gaixotasunak eta ohiko bizimoduen hondatzea eragiten dituzte. Horrez gainera, krisi klimatikoa eta desberdintasun globala larriagotzen dute. Beraz, ezinbestekoa da gatazkak ezagutzea, aztertzea eta bizimodu bidezkoagoak, jasangarriagoak eta naturarekin orekatuagoak sustatzen dituzten borrokei laguntza ematea.

2. JARDUERA: Gizarte- eta ingurumen-gatazken mapa

Jardueraren deskribapena

Ikusi berriro bideo hau: [Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean.](#) (2:07 minututik 8:48 minutura). Eskatu ikasleei bideoa ikusi bitartean gako-ideiei eta informazio garrantzitsuei buruzko oharak hartzeko.

Ikertzen

Egin 3-4 pertsonako taldeak.

Ondoren, eskatu taldeei eskualdean edo Estatuan gizarte- eta ingurumen-gatazkak dauden ikertzeko, eta horietako bat aukeratzeko, aztertzeko.

Baliabide hau kontsultatu daiteke: [EJAtlas](#)

Gai hauek aztertuko dituzte: Touro meategia (Galizia), Guggenheim museoaren proiektua Urdaibaiko Erreserban (Euskadi) eta nekazaritza-eredu industrialak. Gainerako taldeek beste gai batzuk aukeratu dituzte.

Gatazkak banatu ondoren, fitxa hau bete beharko dute. Horretarako, informazioa bilatu dezakete Interneten, aitona-amonei galdetu, auzokoei galdetu, etab.

- Gatazkaren izena:
- Non gertatzen da? (Kokapena):
- Zertan datza? (Proiektua edo jardura):
- Nork sustatzen du? Nork lortzen ditu onurak?
- Gatazkaren denbora-lerroa
- Ingurumen-, gizarte-, kultura- eta ekonomia-ondorioak
- Zer aldarrikapen daude horren inguruan?
- Zer eginkizun dute emakumeek borroka horretan?

Besteak beste, irudiak, esaldiak eta testigantzak erants ditzakete.

Gatazken mapa bat

Talde bakoitzak bere ikerketa-fitxa bete ondoren, gatazken mapa kolektiboa egingo dugu. Mapa fisiko bat edo tresna digital hauek izan daitezke: [Google My Maps](#) edo [uMap](#).

2. JARDUERA: Gizarte- eta ingurumen-gatazken mapa

Horretarako, fitxaren laburpen bat kokatuko dugu mapan, eduki hauek jasoko dituen:

- Gatazka-mota
- Enpresa edo eragile arduradunak
- Ondorio nagusiak
- Erresistentzia nagusiak



Gehiago

Mapari buruzko bisita gidatu bat presta dezakegu beste ikasgela edo maila batzuetako ikasleak gonbidatzeko.

Azken gogoeta

- Zertan eragiten dizuite gatazka hauek zuei?
- Zuen aitona-amonek hitz egin al dizuite iraganean izandako gatazkez? Gaur egun indarrean jarraitzen al dute? Nola bizi dute haiek eta nola bizi duzue zuek?
- Zergatik da garrantzitsua gatazka horien aurkako borroka kolektiboa?
- Zer-nolako lotura dute gizarte- eta ingurumen-gatazkek matxismoarekin eta kolonialismoarekin?

2 BLOKEA




Etorkizuna ez da
saltzen: Beste
etorkizun batzuk
irudikatzea
oraina aldatzeko

Mendeetan zehar, natura gugandik bereizitako zerbait bezala ikusten ikasi dugu, planeta erabil daitekeen baliabide-iturri bat besterik ez balitz bezala. Altzari bihurtzen diren zuhaitzak, elektrizitatea sortzeko balio duten ibaiak, gure mugikorretan amaitzen duten mineralak... Baina Lurra ez da gauzen biltegi bat soilik, gure etxea da, eta haren mende gaude bizirik irauteko.

Horrez gainera, lurraldeak ez dira *natura* bakarrik. Kultura, memoria, ohiturak, hizkuntzak, bizimoduak ere badira. Tokiek historia dute, eta bertan bizi diren pertsonen harreman berezia dute leku horiekin. Mundua jakin-minez begiratzeari esker landare basati baten izena ezagutu dezakegu, gure amonek janaria nola prestatzen zuten jakin, gure auzoak zer soinu duen entzun, zein ibai dauden gertu ikertu... Gure ingurua eta tradizioa ezagutzea memoria-haziak dira, eta gure lurraldearekin eta bizimodu sinpleagoekin, errespetuzkoagoekin eta gizatiarragoekin konektatzen gaituzte

Inoiz imajinatu al duzu nolakoa izango litekeen mundua gauzek beste modu batera funtzionatuko balute? Zer gertatuko litzateke natura gehiago zainduko bagenu, mantsoago biziko bagina, pertsonen eta animalien bizitza duin eta lasaiak izango balituzte? Beste etorkizun batzuk irudikatzea amets egitea baino gehiago da. Gauzak aldatzeko lehen urratsa da.

Oraina aldatzeko eta bizitzeko beste modu batzuk irudikatu behar ditugu, irudimena baita gauzak aldatzeko lehen urratsa. Bestelako mundu bat edo bizitzeko modu berri bat irudikatzen badugu, aukera berriak aurkituko ditugu. Horregatik, garrantzitsua da planetarekin berriro konektatzea. Ez bakarrik erabiltzen den zerbait bezala ikustea, baizik eta errespetatzen den zerbait bezala. Bizia ematen digun eta zaindu behar dugun leku bat bezala. Izan ere, txikia dirudien arren, irudikatzea, zaintzea, eustea... mundua aldatzeko moduak dira.



Eta zu, ausartzen al
zara amets egiten?

2 FITXA



Nola
irudikatzen
duzu
etorkizuna?

Bideo-foruma

Fitxa honetako jarduerak aurkezteko, lehenbizi, ikusi bideo honetako pasartea: *Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean* 00:00 minututik 1:03 minutura.

Defendatzaileek kontsumo gutxiagoko etorkizuna irudikatzen dute. Etorkizun horretan natura, airea, ura, edaten ematen diguten ibaiak, elikagaiak ematen dizkiguten lurra eta itsasoa zainduko dira, eta bizitza partekatzeko pertsonen sare batez inguratuta biziko gara. Halaber, Lurra planetarekin eta pertsonekin elikagai jasangarriagoak ekoizteko eta kontsumitzeko moduak lehenesten dituen eta herriak bizitzeko modukoak diren mundu bat irudikatzen dute. Horrez gainera, gure nortasun kolektiboa garatzeko aukera emango digun lurraldea da.

Fitxa honetako jardueren bidez, irudimenean oinarrituta jolastu eta sortu egingo dugu. Baina, hori baino lehen, eztabaida bat has dezakegu gai hauen inguruan:

- Zer lotura duzue bizi zareten lurraldearekin?
- Zein gizarte- eta ingurumen-arazok kezkatzen zaituzte? Zuen ustez, ba al daude aldaketak egiteko beste modu batzuk, aktibismoaz, salaketaz eta legeez harago?
- Zuen ustez, nola bizi gara planetaren mende?
- Zer gerta daiteke irudimena ekintza erradikal gisa erabiltzen dugunean, amesteko ez ezik, dagoena zalantzan jartzeko eta beste zerbait proposatzeko?
- Zer uste duzue behar dela mundua eraldatzeko?
- Zer zerikusi du maitasunak eta errespetuak munduaren eraldaketarekin?

1. JARDUERA: Posta-txartelak etorkizunetik

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

50-60 minutuko saio bat

Materialak

- Kartoi mehea edo postal-txartelaren txantiloia
- Margoak, errotuladoreak edo gailu digitalak, Canva edo Genially formatuan egiten bada

Helburuak

- Beste etorkizun batzuk irudikatzea oraina aldatzeko
- Ikasleen sormen- eta irudimen-gaitasuna sustatzea
- Azterketa kritikoa sustatzea krisi ekosozialaren aurrean

Gerrarik, indarkeriarik, espetxerik eta desberdintasunik gabeko mundu bat irudikatzea ametsa dela pentsa daiteke, baina garrantzitsua da horretan pentsatzea, egun posible dirudienaz harago pentsatzen ausartzea. Pertsona eta mugimendu askok amestu eta beste mundu batzuk eraikitzen dituzte. Eta etorkizun hori arakatzeko modu onena istorioen bidez da.

Irudizko fikzioek edo ekoporiek etorkizun desberdinak imajinatzeko aukera ematen digute. Zientzia-fikzio tradizionalak, aldiz, botere patriarkalaren, arrazistaren edo kolonialaren ideiak errepikatzen ditu askotan. Munduaren begirada apokaliptikoa du, eta mezu hau helarazten du: ezin dugu ezer egin egoera aldatzeko, eta horrek geldiarazi egiten gaitu. Justiziaren, jasangarritasunaren eta zaintzaren inguruko munduak sortzen ditu irudizko fikzioak. Adrienne Maree Brown aktibistak dioen bezala, istorio horiek *fantasiazko guztia hartzen dute, arkua beti justiziarantz makurtuta*.

Ez dira utopia eskuraezinak, baizik eta benetako aukerak, ideiak, helburuak eta ekimenak partekatzeko elkartzen bagara, indar handiagoa hartuko du eta benetako aukerak izango dira. Imajinatzea da eraldatzeko lehen urratsa. Mundu justuago bat nolakoa izan daitekeen erakusten duten istorioak kontatzeak lagundu egiten digu ez konformatzen eta oraindik existitzen ez dena eraikitzen.

Ez da utopia bat, hurrengo zazpi edo zortzi urteetan hori eginez gero sor genezakeen mundua da.

Rob Hopkins

1. JARDUERA: Posta-txartelak etorkizunetik

Jardueraren deskribapena

Eskatu ikasleei 2075. urtetik bidalitako postal ilustratu bat sortzeko banaka.

Horretarako, lehenik eta behin etorkizuna nolakoa den irudikatzea iradokitzen dugu. Gida labur hau erabil dezakete:

- Zer energia-iturriri esker funtzionatzen dute ibilgailuek?
- Nolakoa da elikadura?
- Nola antolatzen dira zaintzak?
- Nola sortzen dira kontsumitzen ditugun gauzak?
- Nola hartzen dira erabakiak?
- Nolakoak dira hiriak?
- Nolakoak dira zure bizitza, zure familia, zure lagunak, zure auzoa, zure herria/hiria?
- Zer egoeratan dago planeta?

Jarraian postalak egingo ditugu. Alde batetik 2075eko Lur planeta eta gizartea ilustratu behar dute, eta bestetik, etorkizunean biziko balira haien eguneroko bizitza nolakoa izango litzatekeen idatzi behar dute.

Azkenik, lotu postal guztiak hari baten bidez eta jarri zintzilik ikasgelan edo korridorean. Utzi denbora tarte bat irakurri ahal izateko.

Behiago

Bidali postal-txartelak zure herriko edo hiriko udalera edo ingurumen-zinegotziei.

Azken gogoeta

- Nola sentitu zara justizia ekosoziala dagoen planeta batean bizi den 2075eko pertsona baten azalean jartzen?
- Imajinatu dugun guztitik, zer uste duzu lor dezakegula 20 edo 30 urtetan?
- Zer egin dezakegu gure egunerokotasunetik irudikatu dugun etorkizun horretara hurbiltzeko?
- Etorkizuneko zer mezu bidali nahiko zenieke gaur egun erabakiak hartzeko ardura duten pertsonei?

2. JARDUERA: Etorkizunera iristeko mapa

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Kraft paper-erroilu handia
- Errotuladoreak
- Kartoi meheak
- Itsasgarria eta zelo-papera
- Folioak

Helburuak

- Arazo zailak zeregin sinpleago eta zehatzagoetan banatzen ikastea, tokiko ikuspegia kontuan hartuta.
- Tokiko eta munduko arazoek zer lotura duten ulertzen laguntzea
- Funtsezko irudimena aktibatzea

Batzuetan, arazo handien aurrean —esaterako, klima-aldaketa edo desberdintasun sozialak— ezer egiterik ez dagoela sentitzen dugu. Ezintasun sentrazio horrek geldiaraz gaitzake. Baina, egia esan, txikitik, egunerokotasunetik eta eskura dugunetik ere hasten dira aldaketak.

Keinu bakoitza garrantzitsua da, eta, pertsona asko elkarrekin antolatzen eta jarduten badira, ezinezkoa zirudiena lor daiteke. Gakoa taldean lan egitea da. Eduardo Galeanok zioen bezala: *Jende txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake.*

Horregatik, funtsezkoa da ulertzea denok dugula erantzukizunaren zati bat gizarte-eraldaketan, eta gure ekintza zehatzek, beste batzuenekin batera, errealitate justuagoak, jasangarriagoak eta solidarioagoak eraiki ditzaketela.

2. JARDUERA: Etorkizunera iristeko mapa

Jardueraren deskribapena

Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu, galdera honi buruz hausnartu dezaten:

- Nola irudikatzen duzu bizi nahi duzun etorkizuna?

Eztabaidatu eta marraztu dezakete, gako-hitzak idatzi..., gero talde handian aurkezteko. Hona hemen jarraibide batzuk:

- Nolakoak dira zure bizitza, zure familia, zure lagunak, zure auzoa, zure herria/hiria?
- Irudikatu itsasoa edo mendia
- Imajinatu nolakoa den institutua
- Pentsatu heldua zarela: zertan aritzen zara, zer egiten duzu aisialdian, norekin bizi zara?
- Imajinatu nola sentitzen zaren

Ondoren, itsatsi kraft edo antzeko paper bat arbelean edo horman.

Gero, kontatu elkarri bizi nahi ditugun etorkizunak. Elementu horiek helmugak izango dira.

Ikasleek ariketa hori egiten duten bitartean, idatzi helmugak koloretako kartoi meheetan, eta itsatsi kraft paperaren eskuineko aldean. Behin hori eginda, pentsatu denen artean: Zer behar dugu helmuga horretara iristeko? Elementu horiek geralekuak izango dira.

Marraztu kraft paperean lerro bat ezker aldeko abiapuntuaren eta helmuga bakoitzaren artean. Helmuga bakoitzera iristeko egin behar ditugun geldialdiak kolore ezberdineko kartoi meheetan idatziko ditugu, eta bide bakoitzean itsatsiko ditugu.


Etorkizunerako mapa eraikiko dugu

- Zer egin dezakegu guk irudikatzen dugun etorkizun horretara iristeko?

Ekintza zehatzak pentsatuko ditugu bidearen geldialdi bakoitzean, eta beste kolore bateko kartoi meheetan bildu eta mapan gehituko ditugu.

Jasota daudenean, galdetu zer ekintza egin ditzakegun guk bakarrik eta zein taldean.

2. JARDUERA: Etorkizunera iristeko mapa



Gehiago

Fanzinea

Fanzine kolektibo bat egin dezakete helmugei, geldialdiei eta ekintzei buruzko proposamen guztiak bilduz, eta bertan sar daitezke kontakizun ekotopikoak, naturari buruzko hausnarketak, zainketak eta elkarrizketak.

Azken gogoeta

- Nola sentitu zara etorkizun posibleak imajinatzen? Zure ustez, errealistak al dira proposatu dituzuen geldialdiak?
- Pentsatu al duzu inoiz zein den gure banakako ekintzen eragin kolektiboa?
- Zer deritzozu baieztapen honi buruz? Ekintza kolektiboak dira irudikatzen ditugun etorkizunak lortu ahal izateko gakoa.
- Zure ustez, zer adierazten du interdependentziak?
- Zer paper bete dezakegu planetaren eraldaketan?

3 FITXA



Lurrazaren
eta
bizitzaren
defendatzaileak

Bideo-foruma

Fitxa hau egiteko, ikusi bideoaren zati hau (1:04 minututik 2:07 minutura) *Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean.*

Zati honetan, labur-labur ezagutuko ditugu Isabel, Belen eta Eider. Bideoko hiru protagonistek, beste pertsona askorekin batera, egunero borrokatzen dute Touroko Meategiaren aurka, elikagai-ekoizpenerako beste eredu alternatibo baten alde eta Guggenheim Urdaibairen museo-proiektuaren aurka.

Fitxa honetako jardueretan murgildu aurretik, hausnartu denon artean galdera hauei buruz:

- Zer esan nahi du lurraldearen defentsak?
- Zuen ustez, mundua ikusteko dugun modua aldatu dezake Isabel, Belen eta Eider bezalako pertsonei entzuteak? Zergatik?
- Zuen ustez, lurraldearen defentsak ingurumenarekin bakarrik al du zerikusia? Zer beste elementurekin du lotura?
- Zuen ustez, zergatik dira emakumeak munduko justizia ekosozialaren defendatzaile asko?
- Planetako leku batzuetan, defendatzaileak hil eta bortxatu egiten dituzte. Zergatik gertatzen da hori?
- Imajinatzen al zenuten inguruko lurraldeetan ere badirela defendatzaileak?
- Nolakoak imajinatzen zenituzten?
- Ezagunak egiten al zaizkie kontatzen dituzten lurralde-arazoak?
- Mobilizatzea merezi duela iruditzen zaizue?
- Ezagutzen al duzue zuen herriko, hiriko edo auzoko beste defendatzailerik?
- Defendatzaile guztiak pertsona publikoak direla uste duzue? Edo alde guztietan daudela pertsonak, bereziki emakumeak, lurra, kultura, ohiturak eta tradizioak defendatzen?

1. JARDUERA: Gure inguruko defendatzaileak

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

3 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- A4 neurriko karto meheak
- Dekoraziorako elementu naturalak

Helburuak

- Justizia ekosozialaren emakume defendatzaileak aitortzea eta ikusaraztea
- Zainketak eta zainketa horiek bizitzari eusteko duten garrantzia ikusaraztea
- Eguneroko borrokei balioa ematea

Mundu osoan, milaka emakumek eta lurraldeen, giza eskubideen eta bizitzaren defendatzaileek funtsezko borrokei eusten diete, bizitzea ahalbidetzen diguna babesteko: ura, lurra, gorputzak eta duintasuna. Lurraldearen aldeko borrokan, bizirik dagoen kultura bat babesten ari dira, bai norberaren istorioak kontatzen dituen hizkuntza bat ere; eta horrek eragina du nola hautematen, ulertzen eta azaltzen dugun mundua. Baita belaunaldiz belaunaldi naturarekin eta elkarren artean erlazionatzeko modu paregabea ehundu duten tradizioak ere. Lurra defendatzea errespetuan, zaintzan eta kide izatearen sentimenduan oinarritutako bizimodua defendatzea ere bada. Izan ere, lurralde bat kaltetzen denean, memoria, identitatea eta mundua beste modu batean bizitzeko (inguruarekiko bidezkoagoa eta harmoniatsuagoa dena) eskubidea ere erasotzen ari dira. Horregatik, borroka bizitzaren alde da, bere forma guztietan.

Defendatzaileak askotan ez dira ikusten, kriminalizatu egiten dira edo ez daude babestuta, nahiz eta haien lana oso garrantzitsua izan. Emakumeek eusten diote bizitzari, baita estraktibismoak, matxismoak eta indarkeriak eragina duen etsaitasunezko testuinguruetan ere.

1. JARDUERA: Gure inguruko defendatzaileak

Elkarri sakon lotutako mundu batean bizi gara. Alde batetik, ekodependenteak gara, gure existentzia naturaren orekaren menpe dagoelako, eta, bestetik, interdependenteak, elkarrekiko zaintza eta gure harremanak behar ditugulako duintasunez bizitzeko.

Hala ere, kapitalismoak eta patriarkatuak bigarren mailan utzi dituzte zaintzak, ikusezin bihurtuz eta botere-eremuetatik kanpo utziz, garrantzia gutxiko kontuak balira bezala. Zaintzak bizitza pribatuko gai bat direla sinestarazi digute, hala ere, garrantzitsua da ulertzea estatuak baduela horien gaineko erantzukizuna, eta zaintza horiek bermatu eta ikusgarritasuna eta garrantzia sustatu behar dituela.

Pertsonen, komunitateen eta ekosistemen arteko harreman-sare hori aitortzea funtsezko urratsa da mundu justuago bat irudikatzeko eta eraikitzeko, bizitza erdigunean jarrita. Defendatzaileei entzutea, zaintzak balioestea eta gure arteko interdependentzia onartzea keinu eraldatzaileak dira, eta bizitzaren parte aktiboan parte hartzera gonbidatzen gaituzte.



Belén Santamaría



Eider Gotxi



Isabel García

1. JARDUERA: Gure inguruko defendatzaileak

Jardueraren deskribapena

Jarduerari ekin aurretik, justizia ekosozialaren defendatzaileen kontzeptuari buruz hitz egingo dugu. Emakume horiek, mundu osoan, baita gugandik hurbil ere, natura zaintzen dute, giza eskubideak defendatzen dituzte, eta ura, basoak, kultura, tradizioak eta jakintzak babesten dituzte.

Bideoko protagonistak bezala ekintzaile ezagunak izan daitezkeela azaltzen dugu, baina gure bizilagunak, amonak, izebak, amak edo lagunak ere izan daitezke, eguneroko keinuekin bizitzari eta komunitateari eusten diotenak.

Adibidez:

- Bere komunitateko ibaia defendatzen duen liderra.
- Komunitateko baratzearen ardura duen auzokidea.
- Ama edo amona bat, errezeta tradizionalak irakasten dituen eta sasoiko elikagaien balioaz hitz egiten duena.
- Birziklatzeko edo basoa garbitzeko tailerrak antolatzen dituen neska gaztea.

Bizitza eta lurraldea zaintzen duten emakumeei buruzko erakusketa

Kartoi mehean, talde bakoitzak elkarrizketatu duen defendatzailearen informazio hau jarriko du.

- Defendatzailearen izena edo izengoitia.
- Argazkia (baimena ematen badu) edo marrazkia/erretratu.
- Bizilekua.
- Esaldi inspiratzailea edo hura ordezkatzeko duen esaldia.

Lurraldearen, kulturaren, bizitzaren edo zaintzaren defendatzaile gisa egindako ekintzen deskribapen laburra.

Jarraian, azaldu eguneroko defendatzaileen azalpen bat egingo dugula, eta, horretarako, banaka edo bikoteka, defendatzailea den gertuko emakume bat aukeratuko dute (nahiz eta ez duten horrela izendatzen). Senide bat izan daiteke, lagun bat, auzoko pertsona bat, herriko pertsona bat, institutuko pertsona bat, etab.

1. JARDUERA: Gure inguruko defendatzaileak

Elkarrizketa

Ondoren, pertsona horri elkarrizketa laburra egingo diote (ahozkoa, idatzizkoa, audio edo bideo bidezkoa), eta informazio hau jasoko dute:

- Zer egiten du edo zer egin du bere udalerriko edo auzoko ingurunea zaintzeko?
- Zergatik da garrantzitsua harentzat planeta, kultura eta tradizioak zaintzea eta ama-hizkuntza egunero erabiltzea?
- Zer dira harentzat natura, kultura, tradizioak?
- Nola irudikatzen du berak etorkizuna?

Erakusketa bat antolatuko dugu ikastetxean (korridoreak, ikasgela, liburutegia...), “Gure inguruko defendatzaileak” laneko fitxa guztiekin. Horretarako, musika, horma-irudiak, hostoak, lurra, elementu sinbolikoak... erabil daitezke.

Ehizago

Bisita gidatu bat antolatu daiteke taldeka, eta beste maila batzuetako ikasleak gonbidatu.

Halaber, elkarrizketatutako defendatzailearen bat gonbida daiteke ikastetxera, bere esperientzia partekatzeko.

Azken gogoeta

- Zer ikasi duzu zure inguruko defendatzaile bat bilatzean?
- Oro har, emakumeek dute zaintzaren ardura. Zer iritzi duzu horren inguruan?
- Zer gauza txiki izan daitezke eraldatzaileak?
- Zergatik da garrantzitsua zaintza ikusezin horiek ikusaraztea? Nola hartzen duzu parte zaintza horietan?

2. JARDUERA: Gorputza-lurraldea

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Orriak eta boligrafoak.
- Analisi-taularen kopiak.
- Interneterako sarbidea, informazioa bilatzeko.
- Pinturak eta errotuladoreak.

Helburuak

- Lurraldeko defendatzaileen figura eta egiten duten lana ezagutzea.
- Lurraldeen bizia kaltetzen duten ekimenen aurka dauden herritarren mugimenduen funtsezko elementuak identifikatzea.

- Memoria historikoak eta kontakizun alternatiboek etorkizun posibleak sortzeko duten garrantzia ulertzea.
- Genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea.

Feminismo komunitarioaren arabera, despatriarkalizazioak patriarkatua desarmatu eta suntsitu nahi du, komunitatea eta komunitateen komunitatea berrezartzeko, bizitza, pertsonak eta natura antolatzeko modu gisa. Despatriarkalizazioa lortzeko, egitura ukitu behar da, noski. Horretarako, bost ekintza eta borroka eremutatik egitea proposatzen da, bost dimentsio politikotatik: gorputza, lurraldea, denbora, mugimendua eta memoria. Bizitzaren dimentsio horiek ez dira bereiz existitzen, etengabe erlazionatzen dira elkarrekin⁷.

- **Gorputza**: askatasun eta autokontrolerako lekua, adiskidetasun, maitasun, errespetu eta osagarritasuneko harreman positiboak sortzeko gaitasuna dutenak. Matxismoan, arrazakerian eta klasismoan oinarritutako botere-harremanak saihestuz. Emakumeen gorputza patriarkatuaren eraikuntza eta sostengurako dimentsio bat da.
- **Lurraldea**: bizi-eremu ukigarria eta ukiezina. Harreman harmonikoak ezartzen ditugu pachamama edo amalurrarekin eta kultura arteko komunitate eta herrietako beste pertsona batzuekin. Patriarkatua agertzen den lekua ere bada, adibidez, estraktibismo moduan.


⁷ InteRedeko hezkuntza despatriarkalizatzaileko eskualdeko diplomatutik ateratakoa. Egilea Adriana Guzmán da.

2. JARDUERA: Gorputza-lurraldea

- **Denbora:** bizitzaren zaintzatik ondo bizitzeko esperientzia zikliko eta bakarra; horretarako, funtsezkoa da zaintza-lana partekatzea. Sistema patriarkalak denbora ekoizpenerako hartu du, esplotazioaren bidez, eta sistemak bizitzarako denborarik gabe uzten gaitu.
- **Mugimendua:** hasteko eta amaitzeko, proiektatzeko, antolatzeko, exijitzeko, ahotsa altxatzeko eta borroka kolektiboetan aliatzeko. Ezin da bakarka zapalkuntza-sistemekin amaitu.
- **Memoria:** gure sustraiak dira, gure arbasoekin lotzen gaituena, ahaztu behar ez diren antzinako jakinduriarekin eta informazioarekin, esperientziarekin, historiarekin, borrokekin, erresistentziekin eta gure amonen errebeldiekin lotzen gaituena. Zapalkuntza-sistemak memoria ezabatzen saiatu dira.

Komunitatea da despatriarkalizazioaren erdigune, xede edo horizonte politikoa.

Metodologia hori *Mujeres construyendo Bolivia para vivir bien* Aukera Berdintasunerako Plan Nazionalean planteatu zen.



2. JARDUERA: Gorputza-lurraldea

Jardueraren deskribapena

Hasi aurretik, feminismo komunitarioen definizioan eta hezkuntza despatriarkalizatzailetik bultzatzen diren bost elementuetan buruz sakontzea gomendatzen zaie irakasleei.

Defendatzaileak

Hasteko, galdetu ikasleei eta idatzi arbelean ateratzen diren funtsezko ideiak:

- Zuen ustez, zer da “lurraldearen defendatzaile” bat?
- Zer egiten dute?
- Nolako lekuetan bizi dira?
- Zergatik defendatu behar dute lurraldea?
- Norengandik edo zerengandik babestu behar dute?

Egin hiru talde, eta esleitu talde bakoitzari bideoan agertzen diren gatazka bana (Touro O Pino meategia, Guggenheim Urdaibai Museoa, egungo nekazaritzako elikagaien eredua). Arazo horiek feminismo komunitarioko bost elementuetatik abiatuta aztertu beharko dituzte.

Horretarako, irakasleak despatriarkalizazio-metodologia azaldu beharko du, testuingurua emanez eta bost elementuak azalduz.

Ikasleek bideoan jasotako defendatzaileen kontakizunetan eta Internet bidez bil dezaketen informazio osagarrian oinarrituta egin beharko dute analisia, eta talde bakoitzak taula honen kopia bat izango du gida.

Talde-lanari ekin aurretik, tarte bat utziko zaie aztertu beharreko edukia ezagutzeko, eta, ondoren, bideoa bigarren aldiz ikusiko dute, aztertu beharreko gaiei arreta emanez.

Taldekako analisia egin ondoren, beren aurkikuntzak eta ondorioak denen aurrean aurkeztuko dituzten bozeramaileak aukeratuko dira.

2. JARDUERA: Gorputza-lurraldea

GORPUTZA (Aztertzea problematika horietan gertatzen diren botere-harremanak, nork gauzatzen dituen eta nola, lurraldeetan eta inguruko pertsonen ongizatean eraginez)	
LURRALDEA (Zer ondorio dituzten problematikek lurraldean, bai ingurumenean, bai herritarren bizitzan, bai osasunean, bai eta kasuan kasuko lurraldeetako politikan ere)	
DENBORA (problematika horiek denboran zehar izan dituzten ondorioak eta bizitzaren zaintzarekin izan duten harremana)	
MUGIMENDUA (Emakumeak edo emakume-erakundeak bilatzea eta borroka horietan duten papera ikertzea, baita gazteen zeregina ere).	
MEMORIA (Lurraldeko iraganeko borroken memoria berreskuratzea)	
NABARMENDU NAHI DITUZUEN BESTE GAUZA BATZUK	

2. JARDUERA: Gorputza-lurraldea

Behiako

Defentsarako kartografia biziak: erresistentzian dauden lurraldeetara bidaia eszenikoa.

Kartografia bizi sortzea: arazo bakoitzaren irudikapen eszeniko eta sinbolikoa. Bost elementuei erantzuten die, baina sormen-baliabideak erabiliz (oihalak, kraft papera, klarionak, sokak, hostoak, elementu naturalak, kartoia, etab.)

Horretarako, lurralde sinbolikoko lurzoruan mapa bat sortzea proposatzen da, hauek barnean hartzen dituenak:

- **Gorputza** → Pertsonaia sinboliko bat: Nola sentitzen da? Nola eragiten dio gatazkak?
- **Lurraldea** → Non gertatzen da?; Zer kaltetzen du?; Zer eraldatzen du?
- **Denbora** → Denbora-lerroa, gatazkaren iragana-oraina-etorkizuna adieraziz.
- **Mugimendua** → Defendatzaileak, emakumeak, gazteak: Nork eusten dio?
- **Memoria** → Iraganeko zer borroka daude gaur egun? Zer ezagutza?

Adibidea: Touro - O Pino meategiaren taldean, material desberdinak erabil ditzakete lurrari egindako kaltea irudikatzeko, soka gorri bat edo beste edozein kolorekoa kutsadura aztarna gisa, eta hostoak erresistentzia sinbolizatzeko.

Azken gogoeta

- Desberdintasunik ikusten al duzu bideoak planteatzen dituen hiru kontakizunen artean?
- Zer eginkizun dute emakume defendatzaileek eta zer harreman dute zaintzarekin? Eta gazteek?
- Zuen ustez, garrantzitsua al da alderdi kolektibotik lan egitea? Zer onura ditu gauzak bakarka egitearekin alderatuta?
- Hiru defendatzaileen kontakizunetan entzundakotik eta zeuek egindako ikerketatik, zerk harritu zaituzte gehien?

4 FITXA



Zergatik
defendatzen
duzu auzi
hori?

Bideo-foruma

Fitxa honekin jarraitzeko, ikusi berriro bideo hau: [Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurlean](#), 8:48 minututik 11:13 minutura.

Bideo horretan defendatzaileek azaltzen dute auzi hauek defendatzen dituztela hainbat arrazoiengatik:

- Isabelek adierazi du garrantzitsua dela ingurumenaren, pertsonen eta osasunaren zaintza erdigunean jartzen duten balioak sustatzea, komunitateen ongizatearen gainera onura ekonomikoa lehenesten duten enpresa handien eta multinazionalen aurrean.
- Belenek kontatu digunez, Huerta Molinilloren bidez, lurzorua eta pertsonen osasuna zaintzeko helburuarekin ekoizten ditu elikagaiak, eta lan horrek etorkizunean aldaketa kolektiboak bultzatzeko funtsezkotzat jotzen duen elkar laguntzako sarea ehuntzen laguntzen du.
- Azkenik, kolektibitatearen ideia defendatzen du Eiderrek, eta adierazten du gizarte informatu eta begirada kritiko bat duen gizarte bat ez dela hain manipulagarria, eta, horregatik, garrantzitsua dela beste lurraldeetako auzi eta borroka kolektiboak ezagutzea.

Atal honi buruz hausnartzeko, galdera hauek egin ditzakegu:

- Zuen ustez, zergatik defendatzen dute emakume horiek lurraldea, kultura eta naturarekiko errespetua? Zerk mugiarazten ditu?
- Zer da zuretzat “lurraldea zaintzea”? Zuk ere bizi zaren lekutik egin dezakezula uste duzu?
- Belenek sareak sortzeaz hitz egiten du. Zure ustez, zer esan nahi du horrek? Zergatik da garrantzitsua beste pertsona batzuekin gauzak elkarrekin egitea?
- Zer alde dago saltzeko elikagaiak ekoiztearen eta pertsonen osasuna eta lurra zainduz ekoiztearen artean?
- Zer pentsatzen duzu Eiderrek dioenaz? Nola utz diezaiokegu gizarte gisa hain manipulagarriak izateari?
- Aurretik ezagutzen al zenuen bideoan erakusten duten antzeko borrokaren bat? Beste leku batzuetan gertatzen dena ezagutzea garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?
- Defendatzaile horien ideietako batekin bat egiten duzula sentitzen duzu? Zein alderditan?

1. JARDUERA: Planetarako albiste onen aldizkaria

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

3 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Interneterako sarbidea duten ordenagailuak, tabletak edo mugikorrak.
- Aldizkari zaharrak, guraizeak, kola, errotuladoreak eta papera (paperezko bertsioa bada).
- Artikuluak antolatze txantiloia edo gida (digitala edo inprimatua izan daiteke).
- Canva edo Google Docs/Slides, bertsio digitala diseinatzeko (aukerakoa).
- Kartoi meheak, kraft papera, collagerako materialak (inprimatzen bada edo fisikoki erakusten bada).

Helburuak

- Ekoantsietatea indargabetzea, aldaketa positiboak eta errealak erakutsiz

- Idatzizko adierazpena, sormena eta talde-lana sustatzea
- Ikerketarako eta iturri fidagarriak hautatzeko trebetasunak garatzea
- Etorkizun ekologikoarekiko begirada kritikoa eta itxaropentsua sustatzea

Pertsona askok, batez ere gazteek, antsietate ekosoziala jasaten dute, hau da, larritasun, kezka edo beldur sententzioa, zenbait arazotan —esaterako, klima-aldaketa, kutsadura edo biodibertsitate-galera— pentsatzean. Antsietate hori sortzen da oso kontziente direlako arazo horien larritasunaz, baina askotan sentitzen dute ezin dutela ezer egin horiek aldatzeko.

Planetaz kezkatzea normala den arren, osasun emozionala zaintzea ere oso garrantzitsua da. Osasun emozionala zaintzeko modu on bat dagoeneko gertatzen ari diren irtenbideak eta itxaropen-istorioak ezagutzea da. Adibidez, komunitate batzuk basoak berreskuratzen ari dira, hiriak kutsadura murrizten ari dira eta gazteek ura edo lurra babesteko proiektuak sortzen dituzte.

Istorio horiek ezagutzeak gogorarazten digu posible dela mundu hobe baten alde borrokatzea, eta pertsona asko horretan ari direla dagoeneko. Konfiantza berreskuratzen laguntzen du, etorkizun desberdinak imajinatzen eta ekintzak, txikiak izan arren, garrantzitsuak direla sentitzen.

1. JARDUERA: Planetarako albiste onen aldizkaria

Jardueraren deskribapena

Elkarrizketa labur batekin hasiko gara:

- Zergatik dira negatiboak ikusten ditugun ingurumen-albiste gehienak?
- Zergatik da garrantzitsua lehendik dauden aurrerapenak eta konponbideak ezagutzea?

Jarraian azalduko diegu aldizkari bateko kazetari eta editore bihurtuko direla eta albiste ekosozial positiboak ikertu beharko dituztela.

Kazetariak egun batez

Taldeak ikertzen hasiko dira (irakasleen laguntzarekin, behar izanez gero).

Talde bakoitzak artikulua bat edo gehiago idatziko ditu, hizkera erraz, positibo eta ulergarriarekin. Datu hauek sar ditzakete:

- Benetako albisteak (iturriekin).
- Asmatutako elkarrizketak, elkarrizketa zientifikoak edo aktibistak.
- Ilustrazioak, komikiak, ekologiari buruzko gurutzegramak, liburuen gomendioak, podcastak, etab.

Aldizkaria osatuko dugu

Gaiak:

- Basoberritzeko eta ekosistemak lehengoratzeko ekimenak.
- Lege aldaketak edo politika berdeak.
- Berrikuntza ekologikoak (teknologia, arkitektura, nekazaritza jasangarriak...).
- Ingurumen- eta gizarte-lorpenak gatazkak indarrean dauden lekuetan
- Gazteen, komunitateen eta mugimendu ekologisten ekintza kolektiboak

Talde bakoitzak bere orria diseinatuko du. Honela egin daiteke:

- Eskuz (collagea paper/kartoi mehearen gainean).
- Digitalki (Canva, Google Slides edo antzekoan).

Ondoren, guztiak bildu eta aldizkarirako azal bat diseinatu dezakegu.

1. JARDUERA: Planetarako albiste onen aldizkaria

Gehiago

Albistegi berdea zuzenean:

Idatzizko aldizkari bat egin beharrian, ingurumen-albiste positiboen programa bat sortu daiteke bideo- edo antzerki-formatuan: talde bakoitzak albistegi baten atal bat prestatuko du (albisteak, umorearen zatia, meteorologia ekologikoa, elkarrizketak, etab.). Ikasgelan aurkeztu daiteke.

Reel formatuan ere egin daiteke.

Azken gogoeta

- Zuen ustez, istorio positibo horiek ezagutzeak lagunduko dizue ingurumenarekiko antsietateari edo kezkarri aurre egiten? Zergatik?
- Zer albistek edo adibidek inspiratu zintuzten gehien eta zergatik?
- Zergatik da garrantzitsua ingurumenarekin lotutako albiste negatiboez gain, bestelakoak ere irakurtzea edo ikustea?
- Zer esango zenioke planetaren alde *egitekorik* ez dagoela uste duen bati?

2. JARDUERA: Ekodependentziaren gorputz-collagea

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

50-60 minutuko saio bat

Materialak

- Aldizkari zaharrak
- Egunkariak
- Guraizeak
- Kola
- Paper handia
- Margoak, errotuladoreak
- Hosto lehorrak, hariak
- Birziklatutako paperak...

Helburuak

- Kontzientzia ekologikoa sustatzea ikuspegi psikoemozionaletik abiatuta
- Hizkuntza sinbolikoa eta sormena garatzea adierazpen-tresna gisa
- Ekodependentzia kontzeptua ulertzea

Ekodependentziak adierazten du pertsonak naturaren menpe gaudela erabat, bizi ahal izateko. Batzuetan, bizi garen sistemak naturarekin dugun lotura sakonetik urruntzen gaitu. Hirietan, adibidez, produktuz betetako supermerkatuak, argi elektrikoak edo eraikin garaiak ikusten ditugu, eta badirudi dena magiaz «agertzen» dela. Baina kontsumitzen dugun guztia leku natural batetik dator. Janaria lurrean hazten da. Arropa landareetatik — kotoia, esterako— edo animalietatik dator. Gure etxeak berotzeko edo mugikorra kargatzeko erabiltzen dugun energia ere planetatik dator, etab.

Izaki ekodependenteak garela onartzeak esan nahi du konturatzea ez garela ez independenteak ez autosufizienteak: Lurra, ura, airea eta izaki bizidun guztiak zaindu behar ditugu bizitzen jarraitu ahal izateko. Horrek esan nahi du erantzukizun handiagoz kontsumitu behar dela, baliabideak alferrik ez gastatu, birziklatu, naturaren erritmoak errespetatu eta planeta suntsituko ez duten bizimoduak bilatu behar direla.

“Ez gara lurrean bizi, lurrari esker bizi gara.”

Revista Endémico

2. JARDUERA: Ekodependentziaren gorputz-collagea

Jardueraren deskribapena

Gorputzaren eta gorputz-adierazpenaren bidez aztertuko dugu nola bizi garen naturaren mende eta zer lotura dugun naturarekin.

Jarduera hasteko, ekodependentzia kontzeptua azalduko dugu laburki, eta gizakiok ziklo naturalen, uraren, airearen, lurraren, landareen, animalien... mende gaudela azalduko dugu.

Galdera batzuk egin ditzakezu hausnarketa sustatzeko:

- Naturatik datorren zer behar dugu bizitzeko?
- Nola ohartzen gara mendekotasun horretaz gure eguneroko bizitzan?

Naturaren soinuak edo musika instrumentala jar dezakezu girotzeko.

Ekodependenteak gara

Gero, 4-6 pertsonako taldetan jarrita, pertsonak naturarekin eta gure artean nola konektatuta gauden irudikatzen duen forma kolektibo bat sortu behar dute beren gorputzekin.

Adibidez, giza zuhaitz bat, sustrai-sare bat, mendi bat, ibai bat edo zaintza-sistema bat sor ditzakete modu estatikoan edo mugimendu errepikakor txikiekin (arnasa hartzea, kulunkatzea, amain ematea...). Oihalak, hostoak, sokak edo beste elementu natural edo sinboliko batzuk ere erabil daitezke irudikapena aberasteko.

Bateratze-lana

Azkenik, jarduerari buruz hausnartuko dugu, mota honetako galderen bidez.

- Zer irudikatu nahi izan duzue? Zergatik?
- Zer emozio piztu dizkizue jarduerak?

Jarduerarekin amaitzeko collage kolektibo bat egin dezakegu. Pertsona bakoitzak bat egiten duen ekodependentziak iradokitzen diona irudikatuko du.

2. JARDUERA: Ekodependentziaren gorputz-collagea

Behiago

Autorretratu ekologikoa:

Naturako elementuez osatutako autorretratu sinboliko bat sortzea marrazkien, collagearen eta pinturaren bidez, besteak beste. Horiekin identifikatuta sentitzen dira, adibidez: Ibai-bihotz bat egin al duzu? Hodei-buru bat? Zure oinak sustraiak al dira?

Deskribapen labur bat egin daiteke, honela idatzita: *Itsasoa naiz, barruan emozio asko sentitzen ditudalako, hazia naiz, esnatzen hasia naizelako.*

Azken gogoeta

- Hirietan bizi garenok naturari bizkarra emanda bizi garela uste duzu? Zergatik?
- Zer emozio sortzen dizkizu zure bizitza naturaren mende dagoela pentsatzeak?
- Zure ustez, zergatik hitz egiten da hain gutxi egungo gizartean ekodependentziaz?
- Zer lotura ikusten duzu ekodependentziaren eta gaur egungo ingurumen-arazoen artean?
- Zer gertatuko litzateke ekodependenteak ez bagina bezala bizitzen jarraituko bagenu?

5 FITXA



Zer da
zuretzat
natura?

Bideo-foruma

Ikusi berriro bideo hau: Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean (14:47 minututik amaierara arte). Azken zati honetan, Isabelek naturak berarentzat adierazten duenari buruz hitz egiten digu.

Ondorengo gaiei buruz hausnartzeak ondoren proposatzen diren jardueretan sakontzen lagunduko digu.

- Zer sentimendu transmititzen dizkizu Isabelek naturarekin duen loturaz hitz egiten duenean? Inoiz sentitu al zara horrela leku natural batean?
- Zer da zuretzat natura?
- Natura zaintzea geure burua zaintzea ere badela uste al duzu? Zergatik?
- Zuretzat edo zure ingurunearentzat garrantzitsuak diren zein leku natural ezagutzen dituzu? Zer istorio gertatu zaizkizue leku horietan?
- Zergatik dio Isabelek ingurumenik gabe ez dagoela bizitzarik? Zer adierazten du baieztapen honek?
- Nola erabiltzen dira soinuak bideoan?
- Ba al dakizu zer diren soinu-paisaiak? Zuen ingurunea osatzen duten soinuei arreta jarri al diezue inoiz?



1. JARDUERA: Bizirik irauten duen natura

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Mugikorra
- Koloretako inprimagailua
- Esplorazio-fitxa
- Orriak
- Errotuladoreak

Helburuak

- Gure ingurunean bizirik irauten duen natura ikusaraztea
- Hiriei buruz hausnartzea, bai eta hiriek naturarekiko duten mendekotasunari buruz ere.
- Landare guztien balio ekosoziala aitortzea
- Behaketa sustatzea

Erreparatu al diezu inoiz galtzada-harrien artean, fatxada abandonatu batean edo eskaileren artean hazten diren landareei? Badirudi hirietan landareak jardineretan edo parkeetan baino ez daudela, baina errealitatea da landare asko daudela zementuari aurre egiten eta edozein txokotan hazten.

Eta hori gertatzen da, segundo batez pentsatzen badugu, hiriak naturaren menpe daudela ohartzen garelako. Eraikin bat dagoen tokian, eusten dion zoru bat dagoelako da. Hiria natura da.

Horrelako landareei, oro har, *sastraka* esaten zaie, baina biodibertsitateari mesede egiten dio, intsektu, hegazti eta ugaztun txiki askori elikagaia eta habitata ematen baitie.

Bizitzen ari garen larrialdien eta ingurumenen erronken garaian, gogoratu behar dugu bizitzak, giza istorioak eta gizakienak ez diren istorioak sare beraren parte direla. Bizimodu berriak eraikitzeko, pertsonak jakin behar dute gizakien eta ez-gizakien bizitzak entzuten, kontrolatzen saiatu gabe eta trukean etekinik lortu gabe.

1. JARDUERA: Bizirik irauten duen natura

Jardueraren deskribapena

Bikoteka edo talde txikitan aterako gara institutuaren inguruak aztertzeraz. Ibilaldi horretan, ikasleei eskatuko diegu *bizirik irauten duen naturaren* adibideei behatzera eta argazkiak ateratzera.

CGoogle Lens programaren laguntzarekin, 3 landare-motari buruzko informazioa bilatzeko eskatuko dizuegu, eta fitxa hau betetzeko:

- Landarearen argazkia
- Izen arrunta (eta zientifikoa, aurkitzen badute)
- Non aurkitu duten
- Hausnarketa: Zer adierazten du hiri-bizitzaren adibide horrek?
- *Landarearen mezu* labur bat munduari: zer esango liguke hitz egingo balu?

Ikusten ez dugun hiri berdea

Ikasleek fitxak herbario batean antolatuko dituzte, eta horri azala eta sarrera bat gehituko dizkiogu, zertan datzan azaltzeko. Edukiak ordena alfabetikoaren arabera edo erabakitzen duten beste edozein irizpideren arabera ordenatu ditzakete.

Gehiago

Berezko ahotsa duten landareen narrazioak:

Kontakizun laburrak idatz ditzakete landareei beren ahotsa emanaz.

Azken gogoeta

- Zertarako balio du inguratzen gaituen natura behatzeak?
- Zer ikasi dugu bizitzaren erresilientziari buruz?
- Nola aldatuko litzateke hiriari buruzko begirada arreta gehiago jarritz gero?
- Nola zaindu eta antzeman ditzakegu ikusezin bihurtutako bizimodu horiek?

2. JARDUERA: Soinu-paisaiak

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

1 edo 2 saio (50–60 min saio bakoitzeko)

Materialak

- Ahots-grabagailua edo grabazio-aplikazioak dituzten mugikorrak (adibidez, Dolby On, Easy Voice Recorder...)
- Kalitate oneko bozgorailuak edo entzungailuak
- Sonogramaren bideoa erakusteko proiektorea edo pantaila
- Papera eta boligrafoak edo landa-koadernoa
- Sarbidea YouTubeko bideora: [Sonograma entzutea](#)
- Mugikorra soinu-grabagailuarekin
- [Padlet](#) edo [Google Jamboard](#) tresna digitalak (aukerakoa)

Helburuak

- Entzute aktiboa eta kontzientea sustatzea, ingurunearekin konektatzeko tresna gisa
- Soinu-paisaiaren ingurumen- eta kultura-balioa ezagutzea
- Entzuten denaren (eta jada entzuten ez denaren) bidez, aldaketa ekologiko eta sozialen inguruan hausnartzea.
- Soinua, memoria eta lurraldea lotzea

Gure inguruko soinuek istorioak kontatzen dituzte: bizi garen tokiaz, izan dituen eraldaketez, aldatu denaz eta galdu denaz. Entzuten dugunari eta jada entzuten ez dugunari buruz hausnartzeak lurraldearen memoriarekin eta aldaketa ekologiko eta sozialekin konektatzeko aukera ematen digu. Dagoeneko entzuten ez den txori baten kantua, desagertuta dagoen azoka bateko zalaparta, lehen ibai bat zegoen lekuko isiltasuna... Soinu horiek guztiek (edo haien faltak) gure inguruneetako eraldaketa sakonei buruz hitz egiten digute. Horrela, arretaz entzutea tresna boteretsua da, bizi garen mundua zaintzeko, gogoratzeko eta haren gainean jarduteko.

2. JARDUERA: Soinu-paisaiak

Jardueraren deskribapena

Jarduerarekin lanean hasi aurretik, gai hauei buruz hausnartu dezakegu:

- Zer soinu daude gure auzoan, herrian edo hirian? Soinu horietaz jabetzen al gara?
- Zer soinu desagertu dira?
- Zer soinu du *naturak*? Zer soinu du *krisiak*?

Sonograma entzutea

Proiektatu Sonograma entzutea bideoa (4 min), eta esan ikasleei arretaz entzuteko. Entzuten duten bitartean, hau idatzi edo marraztu beharko dute begiak itxita:

- Ezagutzen dituzten soinuak
- Zer sentazio eragiten dizkien
- Zer uste dute kontatzen digula soinu horrek leku horri buruz?

Sonograma entzun ondoren, elkarrizketa bat irekiko dugu galdera hauen inguruan:

- Zer gertatuko litzateke soinu horiek desagertuko balira?
- Zer esaten digu soinu-paisaia horrek ekosistemaren orekari buruz?
- Inguruko zer soinu ez dira entzuten denborarekin? Zergatik?

Nire soinu-paisaia

Kalera irtengo gara gure ingurunea esploratzera. Eskola-orduetan egin dezakegu, edo eskola-orduetatik kanpo egiteko eskatu.

Hainbat tokitako hiru soinu grabatzeko eskatuko diegu, eta, soinu bakoitzeko, fitxa bat betetzeko, informazio hau emanaz:

- Non daude?
- Zer entzuten da?
- Zer transmititzen die?
- Soinu hori haurtzaroarekin, familiarekin eta oroitzapenekin lotzea, besteak beste.
- Soinu hori duela 20 urte existitzen zela uste duzue? 20 urte barru ere existituko al da?

Jarraipen labur batzuk emango dizkiegu soinuak ahalik eta kalitate handienarekin grabatzeko:

- Hurbildu mikroa soinura ahalik eta gehien, eta isilik geratu.
- Grabatu mikrofonoarekin ahalik eta gutxien mugituz.
- Grabatu gutxienez 30 segundo.
- Entzun epaitu gabe. Ez dago soinu *onik edo txarrik*, denek kontatzen dute zerbait.
- Errespetatu ingurunea eta pertsonak. Ez grabatu baimenik gabeko elkarrizketarik.
- Gozatu mundua beste era batera entzuteaz.

2. JARDUERA: Soinu-paisaiak

Ikasgelako soinu-paisaia

Ikasgelara itzultzean, pertsona edo talde bakoitzak bere soinuak entzungo ditu eta ordezkari bat aukeratuko du.

Mugikorraren bidez, aukeratu dugun plataformara igotzen dute, informazio hau idatziz:

- Tokia
- Soinuaren deskribapena
- Zer dio inguruneari buruz?
- Zer sentimendu pizten ditu?
- Arriskuan al dago soinu-paisaia hori?

Beste aukera bat izan daiteke ikasgelan banan-banan zuzenean entzutea.

Behiago

Soinuaren horma-irudia:

Muntatu audio bat grabatutako zatiekin, ikasleek esandako esaldiekin edo soinu sinbolikoekin (Audacity edo mugikorretako aplikazioak ere erabil daitezke).

Soinu-mapa:

Soinu-mapa kolektibo bat sortzea, audioak herriko edo inguruko mapa erreal baten gainean kokatzeko.

Azken gogoeta

- Zer ikasi duzu zure ingurua entzunda?
- Zein da giro naturala duen leku baten eta kolapsatuta dagoela dirudien leku baten arteko aldea?
- Uste duzu leku baten soinua babestea bere bizitza babestea ere badela?
- Zer soinu ez duzu nahi inoiz desagertzea?

6 FITXA



Gazteak
etorkizuna
ereiten

Bideo-foruma

Azkenik, zati honetan, gazteek borroka ekosozialetan parte hartzearen garrantziaz hitz egiten digute defendatzaileek. Galiziaren kasuan, gazteek sustatu zuten lehen bilera duela 7 urte, meategia berriz irekitzeko mehatxuaren aurrean. Belenek, Gaztela eta Leónen, udan herrietako baratzetan aitona-amonekin lan egitera gonbidatzen ditu gazteak. Eiderrek Euskal Herritik azaldu digunez, plataformako gazteak arduratzen dira pankartak egiteaz, ekintzak bideoan grabatzeaz eta ekintza zuzenetan parte hartzeaz

Gazteek borroka ekosozialetan parte hartzearen garrantziaren inguruan hausnarketa egiteko, proiektatu bideoa (11:14 minututik 14:36 minutura): *Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrean.* Ondoren, sustatu elkarrizketa kolektiboa galdera hauen bidez:

- Zer paper jokatzan dute gazteek bideoan agertzen diren borroketan?
- Sentitu al zara inoiz ekintza kolektibo baten edo antzeko auzi baten parte? Nola izan zen?
- Zure ustez, zergatik da garrantzitsua gazteak ingurumenaren eta lurraldearen defentsan inplikatzeara?
- Zer ekarpen egin diezaiokezu zuk, zure adinetik, borroka kolektibo bati?
- Zure ustez, zer ikas dezakezu adineko pertsonekin edo beste belaunaldi batzuetako pertsonekin parte hartuz?
- Nolakoa izango litzateke gazteek zure inguruan antolatutako lurraldea defendatzeko ekintza bat?

1. JARDUERA: Nire bizitzaren naturaren mapa

Ikasturtea

DBHko 3. eta 4. mailak

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Herri/hiriko mapa inprimatuak (edo Google Mapserako sarbidea formatu digitalean)
- Kartoi meheak edo kraft paper handia
- Post-it oharak edo txartel txikiak
- Kartoi meheak edo post-it berdeak
- Errotuladoreak, koloretako arkatzak, kola, guraizeak

Helburuak

- Tokiko inguruneke natura-gune garrantzitsuak identifikatzea
- Naturarekiko lotura emozionala sustatzea, esperientzia pertsonaletik abiatuta
- Hiriko edo gertuko naturaguneak kontserbatzearen garrantzia balioestea
- Kidetza sentimendua eta lurraldearen zaintza sustatzea
- Gizarte-mugimenduak sustatzea

Gazteek borroka ekosozialetan parte hartzea funtsezkoa da gure arbasoek hasitako erresistentziei jarraipena emateko. Isabelek — Galiziako defendatzailea— dioten bezala, *gure amonek kontatzen zutena berriz bizitzen ari gara*. Gatazkak errepikatu egiten dira, baina indarrak ere berritzen dira, aurre egiteko.

Horrez gainera, gazteak borroka horietan sartuta egoteak gauzak egiteko ideia eta modu berriak ere ekartzen ditu. Zuen begirada fresko eta eguneratuari eta adineko pertsonen esperientziari esker, iraganeko eta oraingo borrokak lotzen dira.

Gazteok ez dituzue soilik eredu estraktibista eta desorekatu baten ondorioak jasotzen, borroken memoriarekin eta horiek eraldatzeko boterearekin ere egiten duzue.

Aldaketa hori onartzeak esan nahi du iragana eta oraina lotzea, gure aurreko ahotsak entzutea eta hemen eta orain sormenez eta konpromisoaz jardutea. Zuen inplikazioak itxaropenak bizirik mantentzen ditu, sare komunitarioa suspertzen du eta munduan bizitzeko beste modu bat posible dela erakusten du.

1. JARDUERA: Nire bizitzaren naturaren mapa

Jardueraren deskribapena

Hasteko, naturaguneen garrantziari buruz hausnartuko dugu, bai hiri-eremuenak, bai landa-eremuenak (parkeak, ibaiak, baratzeak, mendiak, hondartzak, bideak, etab.), eta naturaguneek gure bizitza emozionalean eta sozialean eta ingurumenean duten papera.

Banakako azterketa


Eskatu ikasleei banaka pentsatzeko haientzat bereziak diren herriko edo hiriko leku naturaletan (jolasteko erabiltzen zuten parkea, paseatzeko erabiltzen zuten ibaia, babesa ematen zioten zuhaitza, etab.).

Mapa kolektiboa sortzea

Talde handian *naturaren mapa afektibo* bat egingo da:

- Mapa fisiko baten edo kraft paperean marraztutako mapa baten gainean, ikasleek aurrez aipatutako naturaguneak kokatuko dituzte.
- Bakoitzak bere oroitzapena, emozioa edo historia dagokion lekuan itsatsiko du.
- Lekueta argazkiak, marrazkiak edo sinboloak gehitu daitezke.

NATURAREN MAPA ERAGINKORRA



Gure ekintzek garrantzia dute

Mapa afektiboa sortu ondoren, hausnarketara eta ekintzara pasatuko gara.

Partekatutako leku eta oroitzapenetatik abiatuta, taldeak gai hauei buruz hitz egingo du:

- Zer mehatxu dituzte naturagune horiek gaur egun?
- Nola aldatu dira azken urteetan?
- Zer sentitzen dugu naturaguneak desagertzeko edo hondatzeko arriskua dagoela pentsatzean?

1. JARDUERA: Nire bizitzaren naturaren mapa

Ekintza zehatzen proposamena

Eremu horiek zaintzeko eta kontserbatzeko, bakarka edo taldean aurrera eraman ditzaketen ekintza zehatzak pentsatzeko eta proposatzeko eskatuko diegu. Hona hemen ideia batzuk:

- Ez utzi zaborrik parke, ibai edo hondartza batera goazenean.
- Garbiketa-jardunaldi bat antolatzea ikasleekin edo familiarekin.
- Zuhaitzak landatzea edo eskolako edo komunitateko lorategiak zaintzea.
- Udalaren edo sare sozialen bidez isurketak edo jokabide kaltegarriak salatzea.
- Mapako leku bati buruz sentibilizatzeko bideo labur bat grabatzea.
- Espazio horiek kudeatzen dituzten tokiko kolektiboekin lankidetzan aritzea.

Ekintza bakoitza txartel berde batean idatziko dugu, eta mapan txertatuko dugu, konpromiso kolektiboaren ikur gisa. Nahi izanez gero, *konpromisoen zuhaitzean* jar ditzakete.

Gehiago

Gure bizitzako paisaien soinu-istorioak

Mapa bisuala egin beharrean, leku bakoitzari lotutako oroitzapen eta soinuekin (uraren zarata, txorien kantua, hostoak, eta abar) podcast bat edo audio-kontakizun bat graba daiteke. Audioak elkarlaneko mapa digital batera igo daitezke honelako tresnen bidez: [Google My Maps](#), [StoryMapJS](#) edo [Genially](#) interaktiboa.

Azken gogoeta

- Zer egin dezakegu leku horiek babesteko?
- Harritu al zaituzte beste pertsona batek partekatu zuen oroitzapen edo espazioren batek?
- Nola aldatzen da gure harremana naturarekin emozionalki konektatzen dugunean?
- Zer kontatu nahiko zenioke kanpoko norbaiti zure herriko edo hiriko naturaguneei buruz?

2. JARDUERA: Infinizioak; hitzetik ekintzara

Ikasturtea

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Iraupena

2 saio (50-60 minutu saio bakoitzeko)

Materialak

- Idazteko orriak
- Kartoi mehea edo kraft papera

Helburuak

- Konpromiso ekosoziala sustatzea
- Ikasleen inplikazioa indartzea mundu justuago baten eraikuntzan
- Sormena eta pentsamendu dibergentea sustatzea

Hizkuntzak mundua izendatu ez ezik, sortu, ordenatu eta zentzua ere ematen dio. Hitzen bidez ikasten dugu begiratzen, sentitzen eta imajinatzen. Baina, sarri, erabiltzen ditugun hitzak guztiz ordezkatzeko ez gaituzten esanahi inposatu eta itxiez beteta egoten dira.

Horregatik, batzuetan kontua ez da zehaztea, irekitzea baizik. Zentzumenekin jolastea, mugak gainditzea, esateko modu berriak asmatzea edo bizitzeko modu berriak irudikatzea. Hitzek geruza asko dituzte: hazia, protesta, aterpea, samurtasuna edo sua izan daitezke.

2. JARDUERA: Definizioak; hitzetik ekintzara

Jardueraren deskribapena

Jarduera aurkezteko, azaldu ikasleei hizkuntzak mundua ikusteko modua moldatzen duela. Hitzek geruza asko dituzte eta beste esanahi bat har dezakete. Batzuetan, garrantzitsuena ez da definitzea, baizik eta beste mundu posible batzuk sortzeko bidea ematen duten zentzumenak irekitzea.

Egin 3-4 kideko taldeak, eta banatu hitz hauek:

Samurtasuna, taldea, ezaugarri komuna, krisia, afektua, justizia, zaintza, aniztasuna, aktibismoa, etorkizuna, birsortzea.

Talde bakoitzak hitzaren infinizio bat edo gehiago idatziko du: definizio irekiak, poetikoak, metaforikoak, osatugabeak, galderekin, sentimenduekin edo irudiekin.

Adibidea:

- Krisia: Bidegurutze bat da. Min ematen du, baina ireki egiten da. Batzuetan gauza berrietara bultzatzen gaitu.
- Samurtasuna: Kontuz begiratzeko modu hori. Hitz bat izan daiteke, tapaki bat, isiltasun bat.

Talde bakoitzak bere infinizioa itsatsiko du kartoi mehe edo horma-irudi komun batean. Irakurri ozen hitz bakoitza.

Aukeran, irudiak, marrazkiak edo collageak ere erabil daitezke.

Hitzetik ekintzara

Hurrengo blokea aurkezteko, galdera hauei buruz hitz egingo dugu:

- Zer sentiarazi digute hitz horiek? Zein hitzekin identifikatzen gara gehien?

Ondoren, talde bakoitzak hitz bat aukeratuko du eta bere inguruan (institutuan, auzoan edo etxean) egin daitekeen ekintza zehatz bat proposatuko du, bere infinizioarekin lotuta. Horretarako, hau pentsatu behar dute:

- Zer adierazten du gure hitzak?
- Zer behar du?
- Zer egin dezakegu hitz hori mundu osoan zabaltzeko?

Ekintzen adibideak:

- Samurtasuna → *Samurtasun-postontzi* anonimoak sortzea ikasgelan.
- Zaintza → Ikasgelan *zaintza partekatuen* plan bat egitea (garbiketa, entzutea, laguntza emozionala).
- Krisia → Tokiko ingurumen-krisi bat ikertzea eta udalari proposamen gutunak idaztea.
- Aktibismoa → Taldeari axola zaizkion auziekin mini podcast edo bideo bat sortzea.

2. JARDUERA: Definizioak; hitzetik ekintzara

Gehiago

Hitzak, infinizioak eta ekintzak erakusketa artistiko edo poetiko bihurtzea, izenburu honekin: *Mundu posible baterako glosarioa*. Besteak beste, marrazkiak, bideoak, objektuekin egindako instalazioak, performancea eta collagea izan ditzake.

Azken gogoeta

- Zer hitzek pentsarazi dizu gehiago? Eta sentitu?
- Zergatik da garrantzitsua mundua ikusteko modu berriak irudikatzea?
- Nola bihurtu daiteke hitz bat ekintza?
- Ekintza horietako zein gauzatu nahiko zenuke?



Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasleei, beren hitzekin eta ereduarekin kontzientzia,
esperantza eta konpromiso-haziak ereiten dituztelako, guztiontzat mundu justuago
eta jasangarriago bat eraikiz.



Eskerrik asko